

Esp. Kod./: 2021ES020007

Erref./Ref.: K.G.

2335/2021 DEKRETU ZK.

BLAGAN ELKARTEARI, euskararen erabileraren aldeko ekintzak antolatzeagatik, dirulaguntza izenduna ematea.

Blagan elkarteak, euskararen erabileraren aldeko ekintzak antolatzeari buruzko dirulaguntza eskatzeko, ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu du:

- ◆ Dirulaguntza eskaera normalizatua.
- ◆ Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.
- ◆ Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Ogasun ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- ◆ Proiektua azaltzen duen informazio orokorra.
- ◆ Ekintzari dagokion aurrekontu zehaztua (gastuak eta sarrerak).
- ◆ Beste diru-laguntzetarako eskabideei buruzko aitorpena.

Idazkaritzak emandako aldeko txostena ikusirik eta era berean Kontu-hartzaitzak aurrekontu kontsignazioa badagoela dioen emandako eginbidea ikusirik,

Alkatetza-Lehendakaritza honek, EBATZI DU:

Lehenengo.- Euskararen erabileraren aldeko ekintzak antolatzeari, zuritu beharreko, **9.000 €ko** dirulaguntza izenduna ematea.

Bigarren.- Hondarribiko Udalaren eta Blagan arteko lankidetza hitzarmena sinatzea.

Hirugarren.- Dirulaguntza, ondoan zehazten diren epeetan eta era honetan ordainduko da:

1. % 60, hau da 5.400 euro, hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.
2. % 40, hau da 3.600 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren

Laugarren.- Dirulaguntzaren gastua, **AD 2071/21** erabiliaren kargura izango da.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

ALKATEA

2021/08/10